

Euskarazko herri-aldizkariak eta teknologia berriak

Idoia Camacho Markina
Gizarte eta Komunikazio-zientzien Fakultateko
Kazetaritza Sailean ikerkuntzarako bekaduna

Komunikazioko teknologia berriek, eta zehazki Internet sareak, aukera ugari eskaintzen diete idatzizko zein ikus-entzunezko hedabideei. Hori dela eta, gaur egun komunikabide gehienek erabiltzen dute sare telematikoa modu batera edo bestera. Artikulu honetan euskarazko herri-aldizkariak Interneten auki ditzaketen abantailak aztertzen dira, orain arte emandako pausuak nolakoak izan diren eta etorkizuneko joerak zeintzuk izan daitezkeen adieraziz.

New communication technologies, and specially, internet, offer a wide range of choices to both written and audio-visual communication channels. Because of that, nowadays most of the media use the telematic net in one way or in other. This article analyses advantages Basque local publications find in using internet, explaining steps taken in the past and showing which the trends of the future could be.

1. Teknologia berriak hedabideetan¹

Consideramos que en un Estado de Derecho la educación y culturización general y el acceso a las nuevas tecnologías son los criterios mínimos exigibles para que la información local se mantenga a cualquier nivel² (Cal Martínez, 1989: 489).

70.eko hamarkadan teknologia berrien "inbasioa" gertatu zenean, ez zuen inork susmatzen ordura arte zientzia-fikzioaren arloan erabiltzen ziren terminoak (komunikazio-sateliteak, zuntz optikoa, errealitate birtuala...) eguneroko hitz bihurtuko zirenik. Teknologia berrien barnean hain garrantzitsua den informatika bizitzako hainbat esparrutan finkatzen hasi zenetik aurrerapen pentsaezinak gertatzen ari dira gure inguruan, eta *informazioaren gizartea* deritzon fenomenoari esker komunikazioak planeta-mailakoak eta bat-batekoak izatera heldu dira. Areago oraindik, gaur egun ordenadorea gizarteko alderdi guztietan finkatu dela esan daiteke, bai enpresaren arloan, bai eremu akademikoan, edo lanaren alorrean.

Dakigunez, puri-purian dauden teknologia berriek hedabideen munduari ere hainbat aurrerapen ekarri diote. Horrela, milaka kilometrotara dagoen kazetariak ordenadore eramangarrian idazten duen notizia zuzenean heltzen da egunkariko idazgelara. Ondorioz, informatikaren bitartez denborak eta distantziak oso garrantzi txikia daukate informazioak egiteko orduan, eta horrek produktuaren hobekuntza dakar. Horrenbestez, teknologia berrien erabileraren bidez esparru lokalaren eta globalaren arteko mugak nahasten hasi dira eta, adibidez, gure ordenadore pertsonaletik munduko edozein lekutan argitaratzen den kazeta irakur dezakegu. Gaur egun, beraz, «espazio geografikoari lotutako komunikazio-eremuak zaharkitu egin dira, teknologia berriek muga administratibo eta orografiko guztiak gainditzen baitituzte inolako oztoporik gabe» (Ramirez de la Piscina, 1998: 210).

Tokian tokiko komunikabideei dagokienez, hauek teknologia berrien erronkari aurre egiten ari zaizkio, lehenago edo geroago egin beharreko lana baita. Izan ere, «La disponibilidad de las nuevas tecnologías de comunicación en suma para enriquecer la comunicación local son inmensas. Su elección y adaptación a las demandas de cada comunidad pueden romper de forma paulatina esas crecientes barreras que alejan a los ciudadanos pasivos de unos entes locales ajenos y extraños»³ (Bustamante, 1986: 87).

Hortaz, teknologiek hedabideen eta herritarren arteko distantzia laburtu egiten dute, hau da, hurbiltasunaren alde jokatzeko dute, prentsa-irakurleen interesetara hurbilduz. Arrazoi hau dela medio, teknologia berriek garatu duten mundualizazioak informazio lokalaren hazkundea ekarri du, eta mundu gero eta globalago honetan jendeak gertuago duenari begiratu nahi dio. Informazioaren gizarteak, nonbait, herri-komunikabideen garrantzia azpimarratu du, lehen begiradan bi fenomeno horiek kontrajarriak badirudite ere.

1. Artikulu hau Eusko Jaurlaritzak finantzatutako ikerketa baten atal bat da, IVAP-HAE Eren beka baten bidez.

2. 'Edozein Zuzenbide Estatutan hezkuntza eta kulturizatzeko orokorra zein teknologia berriak eskuratzeko galdatu beharreko gutxienezko irizpide dira tokian tokiko informazioa maila guztietan mantentzeko'.

3. 'Teknologia berriek aukera ugari eskaintzen dute tokian tokiko komunikazioa aberasteko. Komunitate bakoitzaren beharrei egokitzeko herritar pasibo eta hedabide lokal arrotzen arteko mugak apur daitezke'.

Bestalde, teknologia berrien aldeko apustua edozein komunikabide aurrera ateratzeko eman beharreko urratsa da eta, dudarik gabe, «kazetaritzako edozein enpresaren hazkundearentzat garrantzitsua da, aukera egiteko garaian, sail bakoitzean erabiliko den informatika-tresneria egokia eta, bereziki, programaziorik egokiena hautatzen asmatzea. (...) Garbi dago informatikaren laguntzarik gabe ezinezkoa dela gure enpresak eguneratuak egotea» (Molet, 1992: 87-88).

Herri-aldizkarien kasuan, autoedizioa (hau da, inprimakien edizio elektronikorako beharrezko diren aplikazio, prozedura eta baliabideen multzoa) izan zen teknologia berrien munduan sartzeko eman zuten lehenetariko pausua, ordura arte erabiltzen zen idazmakina albo batera utzita, beren eskaintza hobetzeko asmoz. Zalantzarik gabe, «autoedizioak produktuaren eta kalitatearen kontrola ziurtatzen du, eta epe luzera kostua merkeagotu» (Aranzabal, 1992: 45).

Hala eta guztiz ere, aldizkari guztien artean desberdintasunak egon dira teknologia berriak eskuratzeko orduan, nahiz eta, esan bezala, derrigorrezko urratsa izan aurrera atera ahal izateko. Ildo horretan, «pena ematen du aldizkari batzuk medio aldetik nola ari diren ikusteak, eta nola ez duten teknologia berria eskuratu. Teknologia berria eskuratu balute, beren eremuko lider bihurtuko lirateke, eta erdarazko komunikabideei zailago egingo litzaieke merkatu hori bereganatzea» (Aranzabal, 1992: 45).

Kontuak kontu, gaur egun aldizkari bat ateratzeko prozesua nahiko estandarizatuta dago herri hedabideetan eta «aldizkari gehienek erabiltzen duten tresneria honako hau da: Apple Macintosh ordenadorea(k), Laser inprimagailua, scanner-a, etab.» (Agirreazaldegi, 1993: 13). Softwareari dagokionez, tokian tokiko proiektuak desberdinak izan arren, «gutxienez programa hauek behar dira: testu-tratamendu bat, maketaziorako programa, diseinurako programa, datu-base bat, etab.» (Agirreazaldegi, 1993: 13). Izan ere, orain kaleratzen diren herri-aldizkarietan ia-ia prozesu osoa digitala da; hortaz, agerkari bat argitaratzea oso erraza da informatikari esker.

Baina, horrez gainera, herri-komunikabideek teknologia digital berriek eskaintzen dituzten aukerak eskuratu behar dituzte, gainerako hedabideen partetik etorriko zaien lehiari aurre egin ahal izateko. Gogoan izan behar dugu teknologia zenbat eta gehiago aurreratu, hainbat eta inbertsio txikiagoak egin behar direla aldizkari bat egiteko. Bada, ordenadore pertsonalek eta autoedizioko programek errazago eta merkeago egin bazuten herri-aldizkarien paperezko edizioa, era berean teknologia informatiko berberak are errazago eta merkeago egiten du edizio digitala.

2. Kazetaritza Internet sarean

Azken bolada honetan Internet sareak izan duen garapena izugarria izan da, bere erabilera ziztu bizian hazi baita, eta egunetik egunera hazten jarraitzen du. Hasiera batean Ipar Amerikako arlo militarrean erabiltzeko sortu zen saretxoa, balizko munduko hirugarren gerran irauten ahal izateko informazioa gordetzearen, gaur egun ordenadore bat daukan edozein pertsona sar daiteke jadanik mundu osoan zehar hedatzen den amaraun horretan. Egiazki, gero eta gehiago dira Inter-

neten murgiltzen diren erabiltzaileak, mundu osoko fitxategi eta ordenadoreetara sartzeko aukerei ahalik eta etekin handiena ateratzeko asmoz.

Bestalde, azken urteotan Internet eta teknologia berrien inguruko eztabaidak bete-betean harrapatu gaituela esan dezakegu. «Batzuentzat, gizarte-kontrolerako eta botere ekonomiko handien mesederako dira teknologiak; beste batzuentzat, pertsonaren eta gizartearen zerbitzuan jar daitekeen indar askatzaile bat. Nolanahi ere, badago beste interpretazio bat egiterik: teknologia berriak tresnak direla, arkatz bat izan daitekeen bezain neutroak» (Fernández, 1997b: 29). Iritzi hori da, hain zuzen ere, Umberto Eco (1996: 122) defendatzen duena:

entre los que dicen que Internet es la nueva racionalidad, la nueva comunicación, la nueva posibilidad de contacto con todo el mundo y los que dicen que Internet es un riesgo porque será sólo comunicación virtual y no estaremos más en relación con nadie porque no se sabe quién habla, de nuevo tengo una tercera posición: es posible un uso crítico y democrático de Internet⁴.

Sarearen izatea definitzen duena, beraz, erabilera izango da. Hala, sare horri erabilera egokia eman diezaiokegu, baina gaitzesgarria ere bai, jakina. “En la Universidad de Bolonia estamos tratando de meter en Internet a toda la semiótica, y será un uso positivo de Internet. Si después ganan las *hot lines* sexuales, quiere decir que las cosas salieron de otro modo”⁵ (Eco, 1996: 123). Ondorioz, esan bezala, Interneten ontasuna edo gaiztotasuna gizakiak ematen dion erabilerak definituko duela esan daiteke.

Internetek aukera ematen du mundu mailako komunikazio-sarea hedatzeko, zeinak mezuen truke azkar eta merkea aisatzen duen. Sare telematikoak eskaintzen dituen zerbitzuen artean aukera ugari aurki daitezke, hala nola, edozein herrialdetako egunkaria irakurri, publizitatea eskaini edo jaso, munduko edozein liburutegitan kontsultak egin, eguraldiaren informazioa, banku-eragiketak, kirolen inguruko informazioa, lan-eskaintzak, zinemarako sarrerak eskatu, erosketak egin, eta, azken batean, edozein gairi buruzko informazioa kontsultatu.

Oraintxe aipatu dugun bezala, Interneti eman zaion erabilera garrantzitsuenetarikoa kazetagintzaren produktuak hedatzeko izan da. Gogoan izan behar dugu Internet funtsean komunikabide itzela dela; ondorioz, ez da harritzekoa kazetaritzak holako protagonismoa hartu izana. Datu batzuk ematearren, 90eko hamarraldiko lehenengo erdialdean Estatu Batuetan kazeta elektronikoen sorrera gertatu zela esan dezakegu, www-a (World Wide Web) zabaltzen hasten zen bitartean. Hamarkada horren bigarren erdialdean, berriz –1995 eta 1997 urteetan– Espainiako estatuko egunkari eta bestelako hedabideak hasi ziren sarera igarotzen.

Orrialde elektronikoetan testua, irudia eta soinua sartu zirenetik sarea kiosko handia bihurtu zen, gero eta egunkari, aldizkari, buletin eta komunikabide elektro-

4. ‘Batzuen iritzira Internet arrazionaltasun berria da, komunikazio berria, mundu osoarekiko kontaktua izateko aukera berria. Beste batzuek, ordea, Internet arriskua dela uste dute, alegiazko komunikazioa baino ez izanez gero besteekiko harremana galduko baita. Berrero ere, hirugarren jarrera hartzen dut nik: Interneten erabilera kritikoa eta demokratikoa posible da’.

5. ‘Boloniako Unibertsitatean Interneten semiotika guztia sartzen saiatzen ari gara, eta hori Interneten erabilera positiboa izango da. Gero *hot line* sexualak nagusitzen badira, horrek esan nahi du gauzak beste era batera suertatu direla’.

niko gehiago agertzen hasi zirelarik. Horrela izanda, Internet laster bete zen milaka argitalpenez, gehienak paperean kaleratzen ziren eta kaleratzen jarraitzen dutenen iraulketa besterik ez izanik, baina beste batzuk hasiera-hasieratik *on line* zabaltzeko asmoz sortu ziren, paperetik igaro gabe. Hala, 1998an mundu osoko 10.000 bat hedabidek isurtzen zuten zuzen-zuzenean euren informazioa Internet sarera (Díaz Nosti, 1998: 34), komunikabide horiek mota guztietakoak zirelarik: kazetak, aldizkariak, irrazi-emanaldiak, telebista kateak... Espainiako estatuaren kasuan, urte berean 300 baino gehiago ziren Interneten zeuden argitalpenak. Euskal Herrian, berriz, 60 bat hedabide zeuden, horietatik dozena bat euskara hutsez (Díaz Noci: 1999).

Prentsak egiten duen paperaren kontsumo itzela ezin dela mantendu, eskakizun kopuru gero eta handiagoak eta garraioak paperaren kostua igotzen dutelarik, azken urteotan sarritan entzun dugun ideia izan da. Ildo horretatik, gero eta gehiago dira kazetagitza papera desagertzeaz dagoela pentsatzen duten adituak, haien artean José Gabriel Mugika, *El Diario Vasco*-ko zuzendaria:

yo sí creo que el papel como soporte del periódico va a acabar languideciendo y no sé si desapareciendo, porque estoy convencido de que caminamos hacia un periódico inmediato, (...) de respuesta informativa automática, al minuto, al segundo si me apuráis, y eso en papel no se puede hacer. Este va a ser el camino de la gran transformación de la prensa escrita, la información seguirá siendo escrita, se podrá presentar por escrito, pero el soporte yo creo que cambiará⁶ (Peñalva; Hoyo, 1997: 100).

Baina badaude kontrako iritzia dutenak ere, Jesús Canga bezalaxe (1988: 72-74), berak uste baitu euskarri elektronikoa ez dela izango, berez, prentsaren-tzat mehatxu handirik ondoko arrazoiengatik: «porque el soporte electrónico tiene peor legibilidad, utiliza peor el espacio a un mayor precio y porque con él no existe el *placer de lo inesperado*»⁷. Egon badaude beste oztopo batzuk, hala nola, pantailan informazioa agertzeko arazoak, sistema eragile desberdinen arteko batasuna, edo prentsa garraiatu ahal izatearen abantaila.

Dena dela, badirudi kazeta elektronikoen etorkizunak Interneterako berez pentsatutako hedabideak dakartzala bere baitan, hau da, komunikabide inprimatuaren sistema zaharra alde batera utziz sare zibernetiko berrira egokitutako komunikabideak egitea. Horrela izanik, paperezko edizioen ezaugarriek (edukiak sailez sail eskaintzea, maiztasun zehatza, testualitatearen nagusitasuna...) desagertu behar izango dute, bilaketa arinak egiteko aukera eta edukien etengabeko berriztapena eskaintzen duten komunikabideak izatera igaroz.

Kontuak kontu, eta kazetaritza elektronikoen arrakastaren tamaina albo batera utziz, argi dago Internetek abantaila franko eskaintzen diela hedabideei, eta idatzizko zein ikus-entzunezko hedabide gehienek erabiltzen dutela modu batera

6. 'Nik uste dut papera kazetaritzan indargabetu eta agian desagertuko den euskarria dela, ziur bainago etorkizuneko kazetak etengabeko berriztapena izango duena, eta hori ezin da paperean egin. Hori izango da idatzizko prentsaren eraldaketa handiak jarraituko duen bidea: informazioa idatziz aurkeztuko da, baina nire ustez euskarria aldatu egingo da'.

7. 'Euskarri elektronikoa irakurgarritasun urriagoa duelako, espazio txikiagoa erabiliz garestiagoa delako eta beraren bidez ustekabearen atsegina galdu egiten delako'.

edo bestera, dela posta elektronikoaren bidez informazioa bidali edo jasotzeko, dela sarea informazio-zerbitzu bezala erabiltzeko, edo beren edukia *on line* eskaintzeko.

Gorago aipatu dugu Internet funtsean komunikabide itzela dela. Baditu, ordea, beste hedabideetatik bereizten duten ezaugarri batzuk. Esate baterako, elkarrera-gina edo *feedback*-a, hau da, erabiltzaileak komunikabide horretan parte hartzeko duen aukera: ikus-entzule edo irakurlearekiko harremana, azken batean. Horren kariaz, *mass-media*-ren kontzeptua hautsi egiten da Interneten bitartez, ez baita medio pasiboa, erabat interaktiboa baizik. Horrela izanik, igorleak ez du noranzko mezua bidaltzen, baizik eta hartzailea doa informazioaren bila zuzenean eta, zentzu horretan, erabakiak har ditzake.

Masa-komunikazioaren kontzeptua ez ezik, mendebaldeko kulturari hain erroturik zeuden beste kontzeptu batzuk ere krisian daude gaur egun Interneten bitartez, beraien indarra oraindik orain oso handia bada ere: testu sekuentziala eta irakurketa-modua, adibidez. Izan ere, argitalpen elektronikoen edukiak ez dira modu finko batean irakurri behar (hasieratik amaierara, euskarri fisikoekin gertatzen den moduan). Hipertestuari esker saltoka ibil gaitzake leku batetik bestera, ez bakarrik argitalpen baten barruan baizik eta gai bati buruzko orri desberdinetan, interesatzen zaiguna baino ez kontsultatuz eta informazio gehiago eta hainbat ikuspuntu-tatik lortzeko aukera izanik.

3. Euskara eta Internet

3.1. Interneten erabilera Euskal Herrian

Mundu gero eta global eta uniformeago honetan, denok ingelesez komunikatzen, Coca-cola edaten, *jeans*-ak janzten... nor bere identitatea bereizgarritasun bati lotzeko premia ere senti dezake, eta euskara da hor gure bereizgarri argiena. Gaztelaniak ez du horrenbeste bereizten: erdaraz diharduzun bitartean *masa* zara, euskaraz *norbait* zara (Fernández, 1997b: 32).

Agerian dago euskara normaldu nahi badugu gero eta esparru gehiagotara zabaltzeko behar dela. Hedatze-prozesu honetan izugarri garrantzitsua da teknologia berriek betetzen duten papera, eta bereziki Internet sarea, berari esker gure hizkuntza mundu osoan zehar hedatzea posible baita. Dena den, Euskal Herrian, eta batez ere Euskal Autonomia Erkidegoan oso atzeratuta dago Interneten erabilpena Espainiako batez besteko erabilerarekin alderatuz gero. Gure lurraldearen egoera ezin da konparatu Europako gainontzeko herrialdeekin, eta askoz gutxiago Estatu Batuekin. Euskarazko edukiei dagokienez oraindino askoz atzeratuago gaude, kontuan hartu behar baita euskaldunak are gutxiago garela erdaldunak baino.

Gainera, ez dirudi norabide horretan ezer aurreratzen ari denik. «Axolagabekeria handia dago erakundeen eta kultur eragileen artean. Bisioa falta da: etorkizunera begira zuzendutako ikusmira inteligente bat. Axolagabekeria horren aurrean, geratzen dena ekimen pertsonalak dira neurri handi batean. Berriz ere, eremu honetan beste askotan bezala, euskaldunon eskuetan dago gure hizkuntzaren geroa» (Fernández, 1997b: 42).

Izan ere, teknologia berrien erabilera hazkorrak distantzia eta denboraren mugak gainditu ditu, gaur egungo gizarte-antolaketa mundu-mailako merkatuaren inguruan ezartzen delarik. Hala, kontinenteak gero eta hurbilago daude elkarrengandik eta orain komunikazioaren merkatu globalaren aurrean aurkitzen gara, ideia, zerbitzu eta produktuen trukeak foro bakar batean egiten direlarik. Gauzak horrela,

gizarte gero eta globalago honetan garrantzi handia hartzen ari da identitate zeinu propioak, masa zabalean nor bere izaera markatzeko beharra. Alde horretatik, euskaldun izatea Interneten identitate bereizgarri argia izan beharko genukeela dirudi: sare telematiko globalera sartzeko lotsarik edo beldurrik ez genukeela behar, geure identitate propio horretatik abiatzeko beldurrik ez genukeela behar (Fernández, 1997b: 45).

Dakigunez, Interneten dauden eduki gehien-gehienak ingelesez idatzita daude, eta horren ondorioz sarri entzuten da sarean ingelesez ez dagoena ez dela existitzen. Esan dezakegu, beraz, ingelesa ia-ia Interneteko hizkuntza ofiziala dela. Baina Luis Fernándezen ustetan (1997b: 31-32) zertzelada hori mesedegarria izan daiteke euskaldunontzat:

Euskaldun baten ikuspegitik, uste dut ingelesaren konkurrentzia onuragarria izango dela gure Babel partikularrean. Gaztelania eta frantsesa soberan daudela senti dezake euskaldunak; ez dituela behar. Interneti etekina ateratzeko ingelesa behar duzu: gaztelaniarekin soilik ez zoaz inora. (...) Hori da ekuazioaren alde positiboa: gaztelaniak ez du balio, baina euskaraz, agian, balio dezake, identitate zeinu argi bat delako.

Hala eta guztiz ere, badirudi euskara bezalako hizkuntza minorizatuak hedatzeko baliagarria izan daitekeen amaraun handi horretan gehien mintzatzen diren hizkuntzen nagusitasuna ezartzen ari dela. Izan ere, Kaixo!-Internetek martxan jarri zuen inkestaren emaitzen arabera (<http://www.kaixo.com>), euskara oso gutxitan erabiltzen da sarean nabigatzeko orduan. Euskal Herri osoko 1051 erabiltzaileen artean eginiko inkesta horretan honako datu hauek geratu dira agerian: erantzun dutenen artean % 40k euskara maila altua izanik, % 5,6k baino ez ditu bisitatzen euskarazko web orrialdeak, gaztelaniaz egindakoetan % 45,8ak eta ingelesez idatzitako orrialdeetan % 48,6ak nabigatzen den bitartean. Bestalde, erabiltzaile gehienek astean 1 eta 4 ordu bitartean daudela Internetera konektaturik aipatu dute eta maizenik erabiltzen dituzten zerbitzuak web orriak eta posta elektronikoa dira.

Ondorioz, Euskal Herrian amaraun handiaren erabilera gutxi garatzen ari dela esan daiteke eta, gainera, euskarazko edukiak ez direla gehiegi erabiltzen. Horrez gain, argi dago Internet euskal edukiez hornitu egin behar dela, baina, beste alde batetik esan behar da ez dela nahikoa euskarazko produktuak Internetera isurtzea, baizik eta produktu onak egin behar direla eraginkorrak izatea nahi badugu.

3.2. Euskarazko herri-aldizkariak Interneten

Arestian aipatu legez, teknologia berriak oso inportanteak dira euskara zein euskal kultura mundu osoan hedatzeko, haiei esker hedabideen edukiak oso prezio merkean leku guztietan zabal baitaitezke. Ildo horretan azaldu da Joxe Manuel

Irigoien, *Ttipi-Ttapa* aldizkarikoa. Beraren iritzira, «teknologia berriek eskaintzen duten aukera aprobeixatu ahal da informazio lokala zabaltzeko munduko edozein tokitan kontsultatzeko» (Irigoien, 1998).

Eremu honetan, euskarazko tokian tokiko prentsan *Ttipi-Ttapa* nafar aldizkaria dugu aitzindaria, 1996ko irailean web orrialdea jarri baitzuen Interneten. Handik aurrera, beste agerkari batzuk sartu dira sarean: Urdulizko *Santamariñe*, Urretxuko *Otamotz*, Aretxabaletako *Aretxagazeta* eta Tolosako *Galtzaundi*, besteak beste. Aparteko aipamena merezi du Santutxuko *Berton* aldizkariak, oraingoz aldi berean paperean eta Interneten jaio den herri-aldizkari bakarra. Hala ere, hasierako egitasmo hori bertan behera gelditu zela esan beharra dago eta lehenengo alea baino ez da agertu sarean.

Esan dezakegu Getxoko *Bizarra Lepoan* aldizkarikoen Interneten sartzeko aukera kontuan hartu zutela, baina azkenean lehenago paperean agertutako kanta-liburuxka bat baino ez zuten sarean jarri, beren asmoa bi urrats gehiago egitea bazen ere: hasiera batean, ziberespaziora paperezko aldizkariaren aldakia igarotzea, eta geroago espreski Interneterako edukiak sortzea. Bestalde, badaude beste hainbat herri-agerkari Interneten sartzeko asmoa dutenak.

Interneten sartu diren euskarazko aldizkari guztiek, *Berton*-en salbuespenaz, bazuten aurretik papereko bertsioa, zeina sarean eskaintzen den, osotasunean edo parte bat soilik. Ez dago, beraz, espreski hedabide elektronikoen berrirako sorturiko euskarazko aldizkari lokalik, guztiak hedabide horretara egokitutakoak baitira. Izan ere, Interneterako zerbait egitea garesti eta zail samarra da baliabide murrizak dituzten tokian tokiko agerkarientzat.

Internet sareak aukera ugari eskaintzen ditu, herri-aldizkariak etekin praktikoen handiarekin erabili ahal izateko, besteak beste (Fernández, 1997a: 5):

1. Posta elektronikoa. Zerbitzu hau oso erabilgarria izan daiteke herri-aldizkariaren arteko harremanetarako, beraren bitartez elkarren berri izan dezaten edo informazioaren truke arina egiteko. Bestalde, aldizkari-lanetan ere baliagarria da berriak kanpotik jasotzeko. Etorkizunari begira, zerrenda bidez albiste-agentzia lokal baterako lehen urratsa ekar dezake berekin posta elektronikoa.

2. Web presentzia izatea. Zerbitzu honek ere hainbat aukera eskaintzen die herri-aldizkariari. Agerkari batzuek egiten dutena aldizkariaren kopia sarean jartzea da, hau da, ale bakoitzaren edukia iraultzea web orrialdeetara, Interneterako produktu berezirik egin gabe. Beste aldizkari batzuek, berriz, presentzia finko hutsa daukate sarean: HomePage bat, eduki nahiko finko batekin, bere buruaren berri emateko. Baina horrez gain beste aukera batzuk egon ahal dira, paperezko edizioetan egin ezin daitezkeenak, hala nola, informazio digitalizatua jendearen esku uztea zerbitzu publiko gisa; datutegi komertzialak eskaintzea: gida komertzial edo profesionalak zerbitzu publiko gisa; edo herriaren web ez-ofiziala egitea, herrien informazio askoz sistematikoago eta informatuagoa emateko.

Horrez gain, aipagarriak dira sare telematikoen herri-aldizkariari eskaintzen dizkien beste abantaila batzuk ere. Izan ere, edizio elektronikoen esker irakurleak ugaltzen dira, Interneten egonda munduko edozein tokitatik irakurri ahal baitira.

Gainera, herri-aldizkari elektronikoen, paperezko edizioek bezalaxe, dohainekoak izaten jarraitzen dute, baina ekoizlearentzat merkeagoak dira, ez baitira inprimatu ez eta banatu behar.

Hedabide hauek Interneten sartzen direnean helburu nagusi batekin egiten dute: ahalik eta jende gehienengana heltzea. «Es lógico pensar que una revista local, de medios limitados, o publicaciones de reducidas posibilidades aborden la edición digital con vistas a llegar a un público potencialmente más amplio, sobre todo geográficamente, que el que tienen o tendrían con una edición física»⁸ (Díaz Noci, Meso, 1998: 82).

Hala eta guztiz ere, ez dirudi esperientzia hauek jende ugari erakarri dutenik, eta euskarazko herri-aldizkari batzuk mundu osoan zehar irakurri ahal badira ere beraien webguneetara ez da paperezko aldizkarietara baino askoz jende gehiago hurbiltzen. Horrenbestez, eta esparru gehiagotara zabaltzearen arrazoiarekin batera, orain arte Interneten kontsulta daitezkeen eremu urriko aldizkariak bilatzen dutena zera da: paperean ateratzen dituzten aleez baliatuz hedabide digitalak eskaintzen duen aukera aprobetxatu euren edukiak zabaltzeko, ezer gutxi galtzen baitute. Horren lekuko ditugu Galtzaundiko webgunean agertzen diren hitz hauek: «Atzean geratu nahi ez eta gu ere Interneteko ozeanoan itsasoratu gara. Gure barkua ezagutarazteko beste tresna bat izango da jada ikusgai dagoen web orrialdea».

Bestalde, euskarazko herri-aldizkariak gagozkiola, aurkitzeari begira beren webguneak Internet sarean sakabanatuta agertzearen arazoa aipatu du Joxe Manuel Irigoienek (1998) Euskarazko Kazetaritzari buruzko III. Jardunaldietan, eta direktorio komun bat egitearen alde azaldu zen. Bere irudiko, eta berarekin bat zetozen hitzaldi berean zeuden beste bi mintzakideak, aldizkari guztiek txoko batean egon behar dute, batetik bestera erraz joan ahal izateko, euren arteko harremanak handitzea funtsezkoa baita.

Ildo horretan aipatzekoa da Topaguneak herri-aldizkariak plazaratu zien aukera: berarekin batera Jalgi zerbitzarian parte hartzea, Topagune bezala. Horrela, herri-aldizkariak eta Jalgiren barruan dauden euskalgintzako beste sektoreen arteko erreferentzia sortzen da, sarean duten hurbiltasunagatik. Gaur egun sei aldizkariak berri aurki daitezke Topagunearen webgunera sartuz gero, bakoitzak bere webguneko propioa izanik: Tolosako *Galtzaundi*, Eibarko *...eta kitto!*, Usurbilgo *Noaua!*, Donostiako *Irutxulo*, Urdulizko *Santamariñe* eta Berako *Ttipi-Ttapa*. Era berean, Topagunearen web orrialdetik bertatik hainbat herri-aldizkariarekin kontaktatu ahal da posta elektronikoen bitartez: *Barren* (Elgoibar), *Berrigara* (Bergara), *Eraz* (Durangaldea), *Galtzaundi*, *Goibekokale* (Elgeta), *Guaixe* (Urdiain), *Karkara* (Orio), *Noaua!*, *Santamariñe*, *Txintxarri* (Lasarte-Oria) eta *Ttipi-Ttapa*.

Interneten agertzen diren euskarazko herri-aldizkariak paperean egiten diren bertsioen kalkoak dira, kasu onenatarikoetan, euskarri fisikoan argitaratzen dena sarean jartzen dutelako, gehienetan aurreneko aleen artxiboa edo beste informazioak ere kontsultatzeko aukera eskainiz. Beste aldizkari batzuek, berriz, ezta hori

8. 'Segur aski, baliabide mugatuak dituzten tokian tokiko aldizkariak edo ahalbide urriko argitalpenek edizio fisikoaren bidez lortzen dituzten baino irakurle gehiagorengana iritsi nahi dute edizio digitalari esker'.

ere ez dute egiten: kasu batzuetan idatzizko edukien parte bat baino ez dute eskaintzen, eta beste batzuek sarean duten presentzia beren izena eta logotipoa agertzen diren web orrialde batera mugatzen da.

Iker Merchánen ustez (1998), etorkizunean egoera honek aldatu behar izango du, eta aldaketa hori gerta dadin «sortu, erabili eta garatuko da lengoaia berri bat, hipertestua eta multimedia batzen duena; baina oraindik lengoaia hori falta zaigu». Aipatutako lengoaia ez egotearen arrazoi nagusia bitartekorik ez egotea da, momentuz testua eta irudia baino ez baita erabiltzen euskarazko aldizkariaren edizio digitaletan –bestela oso garestia izango litzateke–, eta horregatik Interneteko bertsioak paperean egiten direnen kopiak besterik ez dira.

Joxe Manuel Irigoienek (1998), bestalde, paperezko edizioen iraulketa izatea ez dela oso eraginkorra pentsatzen du, eta ez du uste paperean erabiltzen den egitura bera egokia denik Interneten erabiltzeko: «adibidez, badaude beste gune batzuk sailaren izena (elkarrizketa...) baino erakusten ez dutenak, eta orduan zuk klik egin behar duzu bertan horren atzean zer dagoen jakiteko. Nik ez dut ikusten hori oso eraginkorra, asko nabigatu behar delako nahi duzun gauza bilatzeko». Horregatik, Irigoienek uste du sare telematikoan jartzen den edizioa

ez dela zertan izan behar aldizkariaren moldaketa, eta Internetek duen egiturari egokitu behar dela euskal aldizkariaren edukina. Horretarako, nik uste dut euskal aldizkari baten guneak eduki beharko lukeela datu base bat Interneterako moldatuta (motoreak eta bilaketa tresnak dauzkana), bestela nik ez dut ikusten, momentuz, hilean hileko aldizkaria jartzeaz gain, interes gehiagorik webari dagokionez.

Ildo horretatik aipatzekoa da *Argia* astekariaren eredua, aldizkari hori ez baita mugatu paperezko edukiak sare zibernetikoan eskaintzera, baizik eta Interneterako espreski egindako produktuak eskaintzen dituela. Horren kariaz, produktu elektronikoari balio gehigarria eman diote *Argia*-koek, Euskal Herriko beste agerkeriek egin ez dutena. Izan ere, bilaketa-tresna propioa dago astekariaren web gunean eta beraren bidez, besteak beste, *Argia*-n 1963tik 1996 bitartera argitaratutako elkarrizketa guztiak kontsulta daitezke. Datu-base horretan hiru kontsulta mota egin ahal dira: testuko bilaketaren arabera, karpeta tematikoen arabera eta fitxa deskriptiboen arabera, alegia. Horrek oso erabilgarria egiten du aipatu datu-basea, bertan nahi diren informazioak erraz lortu baitaitezke. Horrez gain, joan den maiatzean astekariaren bertsio digitala ezarri zuten amaraunean, paperean argitaratzen diren edukiak kontsultatzeko aukera izanik. Horretarako, behin aldizkariaren alea aukeratuta, nahi den artikulua aurkitzeko bi eratako bilaketak egin ahal dira: genero eta gaiaren arabekoak.

3.3. Interneten dauden euskarazko herri-aldizkariak

1999ko maiatzean Interneten aurki daitezkeen euskarazko herri-aldizkariak 9 dira:

- *Aretxagazeta* (Aretxabaleta): <http://www.saretxo.es/aretxagazeta/>
- *Berton* (Santutxu): <http://come.to/berton/>
- *...eta kitto!* (Eibar): <http://www.jalgi.com/topagunea/etakitto/>
- *Galtzaundi* (Tolosa): <http://www.jalgi.com/topagunea/galtzaundi/>

- *Irutxulo* (Donostia): <http://www.jalgi.com/topagunea/bagera/>
- *Noaua!* (Usurbil): <http://www.jalgi.com/topagunea/noaua/>
- *Otamotz* (Urretxu): <http://www.geocities.com/Athens/Delphi/2202/>
- *Santamariñe* (Urduliz): <http://www.geocities.com/Athens/Acropolis/8022/>
- *Tipi-Ttapa* (Bera): <http://www.jalgi.com/topagunea/ttipi-ttapa/>

Bestalde, Interneten euskarazko edukiak dituzten beste tokian tokiko aldizkari batzuk aurki ditzakegu: Hernaniko *Hementxe* hiruhilabetekari elebiduna (<http://www.hementxe.com/hernani/>), Aguraingo *Sorginetxe* aldizkaria (<http://web.jet.es/robegi/index.htm>), Andoaingo *Hementxe* aldizkaria (<http://www.hementxe.com/andoain>) eta Basauriko *El Social* hilabetekaria (<http://torla.sendanet.es/elsocial/default.html>), azken bi hauetan euskararen presentzia oso urria bada ere. Azter ditzagun, bada, sare zibernetikoan agertzen diren euskarazko herri-aldizkariak.

I. Aretxagazeta

Loramendi Elkarteak 1988. urtetik aurrera *Aretxagazeta* aldizkaria argitaratzen du hamabostero Aretxabaletan. Astelehenero erredakzio-kontseilua biltzen da, hurrengo alean sartu ahal diren gaietaz buruz hitz egiteko asmoz. Behin aldizkariaren edukiak erabakita, bi astean behin argitaratuko den alea idazteari ekiten diote, QuarkXpress programa erabiliz. Gero, inprimategian argazkiak eskaneatu eta aleak sortzen dituzte, ostegunean herritarren artean banatu ahal izateko.

Aldizkaria argitaratu ondoren, testu eta argazkiekin (aurretik Corel PhotoPaint programaren bidez ukitu batzuk izanik) orri digitalak sortzen dituzte, Netscape Composer programaren bitartez, gero Internetera igarotzeko FTPa erabiliz. Interneten, webguneaz eta FTPaz gain, posta elektronikoa ere maiz erabiltzen duten zerbitzua da.

Aretxagazeta-k eskaintzen duen web orrian paperean egiten den aldizkariaren iraulketa aurkitzen dugu. Hala, herritarren artean banatzen den bertsioaren kopia izanik, bertan argitaratzen den eduki osoa kontsulta dezakegu, argazkiak eta marrazkiak barne. *Aretxagazeta*-ren web orrian sartzen garenean aldizkariaren azken aleko azala agertzen zaigu, hortik loturen bidez sail batetik bestera joan gaitzen. Era berean, aurreko aleak begiratzeko aukera daukagu, 1997ko abenduaren 18tik argitaratutakoak sarean sartuta baitaude.

II. Berton

Santutxuko ingurunean banatzen den hilabetekari hau euskarazko herri-aldizkari gazteenetarikoa dugu, 1998ko otsailean ikusi baitzuen argia estreinako aldiz. Aldizkari hau egiten duen taldea txikia da eta baliabideei dagokienez nahiko pobre dabilela esan beharra dago. Izan ere, Santutxuko Auzo Elkarteak lokala utzi die, eta bertan dauden ordenadore eta telefonoa Santutxuko Euskal Txokoarenak dira. Gelako altzariak eta bulego-materiala, berriz, han eta hemen lortu ahal izan dutena da.

Aipagarria da, era berean, *Berton* ez dela jai, gainontzeko herri-aldizkari gehienak bezala, doanekoa izateko, ale bakoitza 125 pezetatan saltzen baita. Aldizkariaren diseinua egiteko QuarkXpress programa erabiltzen dute, hasiera batean PM6 erabiltzen bazuten ere.

Berton aldizkariaren web orrian paperean kaleratutako aurreneko alea baino ez zaigu agertzen, orduetik hona argitaratu direnak ez baitituzte sarean sartu. Lehenbiziko zenbaki horretako azala ikus daiteke, bai eta aldizkariaren sailak dituen aurkibide bat, hortik eduki guztiak kontsultatu ahal izateko, bertan dauden argazkiak barne. Dena dela, horretaz aparte Internet informazio-zerbitzu bezala erabiltzen dute, irudiak eta datuak bilatzeko, eta posta elektronikoa ere usatzen dute, dokumentuak bidali eta jasotzeko.

III. ...eta kitto!

...eta kitto! aldizkaria 1988ko abenduan hasi zen kaleratzen, hilabetekari moduan eta tabloide formatua izanik. Hamarkada honetan hainbat aldaketa egin dituzte "*...eta kitto!*" Euskara Elkartekoek aldizkariaren kalitatea hobetzeko, bai edukiaren bai itxuraren aldetik, gaur egun argitaratzen den A-4 formatuko astekaria izatera heldu arte. Hobetze-prozesu horretan, zer esanik ez, ezinbestekoak izan dira teknologia berriak, informatikak eskaintzen dituen aukerei esker idazgelatik aldizkaria egiteko garabide osoa, inprimaketa izan ezik, kontrolatzen baita.

Erredakzio-taldea ostiraletan biltzen da aurreko alea aztertu eta hurrengoan jorratuko diren gaiak aukeratzeko. Behin gaiak erabakita, kazetarien artean banatzen dituzte eta kolaboratzaileekin harremanetan jartzen dira. Artikuluak idatzita daudenean kazetari bakoitzak bere testua erredakzioko ordenadorean gordetzen du, geroago hizkuntza eta bestelako akatsak zuzendu ahal izateko. Erredakzio-gelan egiten den azken pausua honako hau da: testu guztiei forma eman eta astekaria maketatu. Horrez gain, argazkiak eskaneatu egiten dira, ordenadorean sartzeko. Egindako lan guztia diskete batean gordetzen da eta handik inprimategira eramaten dute aldizkaria paperean inprimatzeko.

...eta kitto! aldizkariak 1999ko apirilean eman zuen jauzia ziberespaziora. Izen bereko Euskara Elkarteko web orrialdean hainbat lotura agertzen zaigu, aldizkariaren azala eta aurkezpen txiki baten ondoan: Astekaria, Euskara Elkartea, Artxiboa, Agenda, Industri Kanpaina eta e-mail, batzuk oraindik amaitu gabe badaude ere. Astekariaren gainean *klik* egin eta hurrengo orrian beste aukera batzuk agertuko zaizkigu: Aurreko aleak, Hainbat datu (aldizkariaren fitxa teknikoa), Aste honetako aldizkaria, Lan prozesua (zelan egiten den aldizkaria) eta Zer da? (10 urteko historia). Dena dela, esan beharra dago oraindik aurreko aleak ezin direla kontsultatu, orrialde hori prestatzen ari baitira.

Bestalde, asteko aldizkariaren loturan sakatzean sumario txiki bat azaltzen da, paperezko bertsioan argitaratzen diren albiste garrantzitsuenak bertan kokatzen direlarik. Beraz, Internetera ez da isuri paperezko aldizkariaren eduki osoa, zati bat baizik. Albiste horiek ez daude sailez sail banaturik, paperean egiten den bezala (eta beste herri-aldizkarien bertsio digitaletan ere egiten den moduan), baizik eta bakoitzaren izenburua agertzen dela. Horrela errazagoa da jakitea lotura bakoitzaren atzetik zeri buruzko albistea aurkituko dugun. Testu batetik bestera

joateko, ordea, beti sumariora jo behar da, ezin baita zuzenean igaro. Albisteeekin batera argazkiak ere agertzen dira, baina zuri-beltzez jarri dituzte, arraroa bada ere (paperean kolorez daude eta, gainera, ez da ohikoa Interneten zuri-beltzezko argazkiak ezartzea).

IV. Galtzaundi

Galtzaundi 1991. urtetik aurrera Tolosaldean hedatzen den hilabetekaria dugu. Aldizkari hori Galtzaundi Euskara Taldeak argitaratzen du eta elkarte horrek duen egoitzako gela bat aldizkariaren jardunerako egokituta dago. Gela horretan aritzen dira lanean aldizkariko hiru liberatuak (erredakzio-burua, maketatzaila eta publizista) eta bertan beraien lanerako tresnak biltzen dira. Hiru ordenadore Macintosh dauzkate, bi inprimagailu, eskanerra eta SQP optikoa. Horrez gain, euren tresneria honako elementu hauekin osatzen da: bi telefono, argazki-kamera bat, grabagailu bat eta hiru armairu materiala jasotzeko: aldizkariaren aleak, disketeak, karpetak...

Galtzaundi Euskara Taldeak Pagemill programa erabiltzen du webgunea egiteko. Bertan Tolosaldeko argazki bat topatzen dugu, eta berarekin batera hiru irudi: batetik, sarrera (klik eginez gero taldearen datuak eta egiten dituen jarduerak agertzen direlarik); eta bestetik, Galtzaundiren bi argitalpenak: *Galtzattiki* bat (hiru hilabetero argitaratzen den aldizkari monografiko txikiagoa) eta *Galtzaundi* aldizkariaren azken zenbakia. Bai aldizkarian bai *Galtzattiki*-ren alean paperean argitaratzen den eduki osoa aurki daiteke, aurkibide batetik sailez sail joanez gero. Hori bai, aldizkarien ale berria sarean ezartzen denean (hilabetero) zegoen alea ordezkutzen du; beraz, ez dago aurreko aleak kontsultatzerik. Aldizkariak Interneteko webgunea erabiltzeaz gain, posta elektronikoa ere gero eta gehiago usatzen duen zerbitzua da.

IV. Irutxulo

Irutxulo 1994ko apirilean Donostian banatzen hasi zen astekaria da. Aldizkaria Bagerak, Donostiako Euskaltzaleen Elkarteak, Interneten daukan web orrian aurkitzen dugu. Baina kasu honetan, aldiz, aldizkariaren azala baino ez zaigu agertzen, bertan sailen izenak eta harpidedun izateko gonbidapena eskaintzen direlarik. Gainontzeko webgunea Bagera elkarteko informazioa eta jardueren berri emateko erabiltzen da.

V. Noaua!

Antzeko gauza bat gertatzen da *Noaua!* aldizkariarekin; 1996tik Usurbilen kaleratzen den hamabostekaria da. Izan ere, Noaua! Kultur Elkarteko web orrian sartuz gero, lau loturarekin topatuko gara: Kultur Elkartea, Aldizkaria, Herriko Taldeak eta Usurbil. Azken hau da gehien jorratzen den gunea, herriari buruzko hainbat gai eskaintzen direlarik. Aldizkariaren guneari dagokionez, berriz, beraren erreferentzia baino ez dugu aurkituko, lerro batzuetan paperezko agerkariaren ezaugarriak aipatuz; baina, aurreko kasuan bezala, aldizkaria bera kontsultatzeko aukerarik gabe.

VI. Otamotz

Otamotz aldizkaria Zumarragan eta Urretxun kaleratzen den hilabetekaria da. Urteko 12 aleak ateratzeaz gain, urtekaria eta hauteskundeetako informazioa (biharamunean) ere argitaratzen du.

Otamotz aldizkaria egiten duen taldea, Zintzo-Mintzo Elkartekoa, txikia da eta kazetari bakarra du. Guztira bi liberatu daude eta gainontzekoak musu-truk ari dira. Aldizkaria egiteko erabiltzen duten lokal txikia Urretxuko Udalak utzia da, eta bertan Macintosh bakarra dute, eskanerra, magneto-optiko bat, grabagailua, argazki-kamera bat... Horrekin batera badute armairu bat artxibategi moduan, aldizkariaren alez (beraienak eta besteenak) eta argazkiz hornituta.

Aldizkariaren diseinua egiteko, QuarkXpress 3 autoediziorako programa erabiltzen dute eta argazkiak ukitzeko Adobe Photoshop 3. Editatzeko, berriz, Word eta Excel erabiltzen dituzte.

Sarean aldizkariaren paperezko ale batzuen iraulketa eskaini izan dute, hau da, paperean argitaratzen ziren eduki guztiak igaro dituzte Internetera, argazkiak barne. Lantaldean duten informatikariak Interneterako aleak idazteari ekin zion, baina taldeak oraindik ez du ez posta elektronikorik ezta Internet konexiorik ere. Beraz, eten egin zen Interneteko eskaintza eta egun *Otamotz* aldizkari elektronikoa eguneratu gabe dago, azken zenbakia 1997ko irailekoa izanik. Hala ere, aldizkaria Interneten lehenbailehen eskaintzea espero dute *Otamotz*-ekoek, badutelako aldizkariaren gainera espreski sare zibernetikoan jar litekeen materiala, besteak beste kantu-liburuxkak edo toponimia-lana (Zumarraga eta Urretxukoa), azken hau 1998ko Durangoko azokan aurkeztu zena.

VII. Santamariñe

Santamariñe aldizkaria 1992. urtean hasi zen argitaratzen bi hilabete behin. Hasiera batean Sopela eta Urdulizen banatzen zen, baina gaur egun Uribe Kosta osoan kaleratzen da denbora pasa ahala hilabetekari bihurtu zena.

Santamariñe-ko lehenengo ale digitala 1997ko otsailean agertu zen, paperean argitaratutako 25. zenbakia, alegia, Euskal Autonomia Erkidegoko lehenbiziko herri-aldizkari digitala izanik. Sare zibernetikora egindako jauzi hori asmo argi batekin egin zuten: aldizkariaren ale bakoitzeko albiste garrantzitsuenak eskaintzea. Beraz, paperezko bertsioan agertzen diren albiste batzuk baino ezin dira ikusi, zuri-beltzezko argazki batzuekin batera. Aldizkariaren gain, *Santamariñe*-ren webgunean Orioko Udalak kaleratutako kanta-bilduma bat ere agertzen da, eta baita *Gerra Zibila Uribe Kostan* izeneko erreportaje berezia.

Hasierako asmo horrek, ordea, ez zuen denbora luze iraun, Interneten guztira sei ale baino ez baitute sartu, paperezko edizioan argitaratzen zituzten edukirik garrantzitsuenak eskainiz. Izan ere, arazo ekonomiko eta pertsonal batzuen ondorioz paperezko aldizkaria hilabete batzuetan agertu gabe egon zen, eta edizio elektronikoa eten egin zen. Gaur egun, badirudi edizio fisikoa ere desagertu egin dela.

VIII. *Ttipi-Ttapa*

Ttipi-Ttapa Bidasoa, Baztan, Malerreka, Leitzaldea eta Urdazuriko hama-bostekari nafarra da. 1981eko neguan, offsetez erreproduzita eta idazmakinez idatziriko testuekin, aldizkari horren lehenengo alea argitaratu zenetik bere egoera erabat aldatu dela esan daiteke. Izan ere, hasiera batean Bortzirietan banatzen zen zuri-beltzez egindako hiruhilabetekari hark laurehun aleko tirada zuen. Garai hartan, gainera, ez zegoen sail definiturik eta eduki guztiak nahastuta eskaintzen ziren. Beste datu aipagarri bat da *Ttipi-Ttapa* publizitaterik gabe argitaratu zela 1989. urtera arte, denboraldi horretan ez baitziren inoiz 700 ale baino gehiago kaleratu.

Gaur egun, berriz, 6.800 ale argitaratzen dira, Nafarroako mendialdean eta Saran (guztira hogeita bost udalerritan) banatzen direlarik. Taldean aldizkaria egiteko beharrezkoa den ekipo informatiko osoa ez ezik, argazki-laborategia ere badaukate. Beraz, *Ttipi-Ttapa*-ren idazgelatik kazetaren fase guztiak zuzenean kontrolatzen dira, inprentarena izan ezik.

Arestian esan bezala, *Ttipi-Ttapa* izan zen Internet sarean agertu zen lehen-biziko euskarazko herri-aldizkaria, 1996ko irailean web orrialdea jarri baitzuen sare zibernetikoan, Nafarroako Internet Elkartearen laguntzarekin. Bertan paperezko edizioaren edukiak azaltzen dira, aurkibide batetik sail guztiak kontsultatzeko aukera eskainiz. Aldizkariaren aurreko aleak ere eskura daude, 1996ko uztailaren 4ko zenbakira arte.

3.4. Ondorioak

Interneten bidez hedatzen diren euskarazko herri-aldizkariak, sarean aurki daitezkeen komunikabide gehienak bezalaxe, idatzizko bertsioen menpe agertzen dira. Hau da, paperean argitaratzen diren aleen moldaketa baino ez da ezartzen, eta ez dugu aurkituko Interneterako beren beregi egindako edukirik. Hala, bilaketa-sistemak ez dira erabiltzen eta horrek oso interaktibitate txikia dakar, posta elektronikoen bidez hedabidearekin komunikatzeko aukera besterik ez baitago, baina inoiz ez kazetariarekin. Beraz, agerkari horiek ez dituzte idatzizko bertsioek baino abantaila handiagorik, jende gehiagoren eskura daudela ez bada. Horrez gain, hedabide hauek dituzten web orrietan multimedia ez dela jorratzen esan daiteke, ikus-entzunezko elementurik erabili gabe (ez dute ez soinurik ez irudi mugikorrik) testuan oinarritzen baitira.

Ondorioz, aldizkari gehienak, Interneten dauden beste hainbat argitalpen bezalaxe, sarean helburu zehatzik gabe agertzen direla esan daiteke. Argi dago hedabide askok jotzen dutela sare telematikora beste komunikabide batzuk lehendik sartuta daudelako, eta ez sartzeak ekar diezazkiekeen abantailak ikusten dituztelako. Izan ere, «más bien parece que una cierta inercia lleva a los medios a estar allí porque otros también lo están»⁹ (Díaz Noci, Meso, 1998: 82), bestelako xederik bilatu barik.

Euskarazko herri-aldizkariaren edizio elektronikoak teknologia berrien aurrean nahiko beldurtiak direla esan daiteke, orokorrean euskarazko argitalpen elektroniko

9. 'Badirudi inertziak hedabideak bultzatzen dituela sarean sartzera bertan beste batzuk badaudelako'.

guztiak bezalaxe. Dena den, badirudi Interneten agertzen diren hedabideek etorki-zunean erronka berri batzuei egin behar izango dietela aurre. Herri-aldizkariak erabaki behar dute sare telematikoa eskaintzen duten informazioa era tradiziona-lean ematea, gaur egun gertatzen den moduan, edo harantzago joatea, euren edukia aprobetxatuz sarean produktu erabilgarriagoak eskaintzea (datu-baseak, bilaketa sistemak, Interneterako egindako produktuak...). Horretarako lehenengo eta behin aldizkariak WWWren egiturara moldatu beharra daukate, hau da, loturen bilbadura oinarritzat hartu (hipertestua) eta edizio elektronikoak eskaintzen dituen aukera guztiak agortu.

Bibliografia

- Agirreazaldegia, A., (1993): "Euskarazko herri-aldizkari bat zure herrirako", in Askoren artean, *Herri komunikabideei buruzko II. Jardunaldiak*, ARKO, Arrasate, 7-14.
- Aranzabal, J., (1992): "Herriko aldizkariak elkartzeko saioan", *Argia*, 1992ko ekainak 28, 1.393 zka., 44-46.
- Bustamante, E., (1986): "Las nuevas tecnologías al servicio de los entes locales", in R. Zorrilla, *Información y comunicación en el ámbito de las comunidades locales*. Euskal Herriko Unibertsitatea, Leioa, 71-91.
- Cal, M. R., (1989): "Fórmulas nuevas de información local", in J. T. Álvarez, *Historia de los medios de comunicación en España: periodismo, imagen y publicidad (1900-1990)*. Ariel, Bartzelona, 488-498.
- Canga, J., (1988): *La prensa y las nuevas tecnologías: manual de la redacción electrónica*, Deusto, Madril.
- Díaz Noci, J.; Meso, K., (1998): "Tipología de los medios de comunicación en Internet. Génesis y desarrollo de un nuevo paradigma comunicativo. El caso vasco. XIV", *Congreso de Estudios Vascos: Informazioaren Gizartea - Sociedad de la Información - Societé de l'Information* (14. 1997. Donostia, Bilbo, Gasteiz, Iruñea, Baiona, Madril). Eusko Ikaskuntza, Donostia, 77-83.
- Díaz Noci, J., (1999): *Euskal kazetaritzaren historia*. Eusko Ikaskuntza, <http://suse00.su.ehu.es/ephtm/>.
- Díaz Nosti, B., (1998): *El País*, 1998ko urriak 15, 34.
- Eco, U., (1996): "Conversaciones con Umberto Eco", *Telos*, Ekaina-Abuztua 1996, 46, 121-125.
- Fernández, L., (1997a). "Nola barnera litezke Topaguneko partaideak Interneten", *Topaberri*, 1997ko ekaina, 1, 5.
- Fernández, L., (1997b). "Euskararen espazioa informazioaren autobidean", *Jakin*, Iraila-Urria 1997, 102, 29-46.
- Irigoién, J. M., (1998). "Tokian tokiko prentsa Interneten". Testu argitaragabea, apirilaren 22an Euskal Herriko Unibertsitateko Kazetaritza II Sailak antolaturiko Euskarazko Kazetaritzari buruzko III. Jardunaldietan aurkeztutako hitzaldia.
- Molet, J., (1992): "Kazetal enpresen antolakuntza", *Jakin*, Martxoa-Apirila 1992, 69,81-90.
- Peñalva, J. L.; Hoyo, M., (1997): *De la prensa tradicional al desafío cibernético: I Jornadas de Prensa Vasca*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.
- Ramírez de la Piscina, T., (1998): *Kazetari-I@na Euskal Herrian. Interpretaziorako eta espezializaziorako abiaburuak*, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo.